

## IRTEERA SOPELAKO HONDARTZARA

Martxoaren 7an, asteartean, Aixerrota goiz utzita Sopelako hondartzara abiatu ginen 2.Batxilergoko geologia ikasleok dibertsifikazio klasearekin batera. Gure helburua Arrietako hondartzan dauden arroak, mineralak eta prozesu eta egitura geologikoak aztertzea eta ezagutzea izan zen, eta esan dezakegu arrakasta osoa lorturik bueltatu ginela etxera.



Nahiz eta eguraldia gure alde ez egon, inguruak lagundu gintuen egun on bat izatera. Batxilergoko ikasleok saiatu ginen azalpen onak eta batez ere entretenigarriak ematen; beti ere irakasleen parte-hartzeak beharrezkoak ziren momentuetan onartuz. Olatuak saihesten egon ostean, hamaiketakoa hartu genuen eta txangoa luzatu zitzaigun geologiak sortu zizkigun eztabaidetan murgildurik geundela.



Horrez gain, hurrengo egunetan bi klaseok kontaktuan ibili gara txangoan emandako informazioa borobiltzeko eta airean ez geratzeko. Argi dago denontzat egun ona izan zela eta txangoak benetan merezi izan zuela.

Bestalde, 4Fko ikasleok eskerrak eman nahi dizkiegu Batxilergoko geologiako ikasleei, txango honetara gonbidatu izateagatik. Fosilei eta arroka motei buruz ikasi genuen, baita denborak paisaian duen eraginari buruz ere. Irteeraren ondoren, gelan egindako denbora-lerroa erakutsi genien. Elkarlana guztiz aberasgarria izan dela esan dezakegu; beraz, hurrengo batean ere, kontuan har gaitzazue!

